

Donostian, Txurruka kaleko bere ordezkaritza, 1984.eko otsailaren 24an bildu da Euskaltzaindia goizeko hamar t'erdietan. Bezperan Donostian izandako hilketaren tamalgarriaren ondorez, Manterolaren omenez arratsaldean egitekoa zen ospakizuna beste egun baterako utzi da. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak; X. Kintana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, L. Mitxelena eta F. Ondarra jaunek ezin etorria adierazi dute.

Goiz-arrats egitekoak ziren batzarre biak gai arruntei buruz bateratzea erabaki da. Euskaltzain osoen bilera egin da lehenik, batzar orokorrari kontu emanez azken orduan.

Aurreko agiria onartu da, E. Knörr jaunak bere garaian ezin etorria adierazi zuela gehituz.

### **Lehen bilerako gaiak**

L. Villasante jaunak aditzera eman duenez, gaur amaitzen da A. Irigaray zena-ren hutsunea betetzeko euskaltzaindiaren izenak aurkezteko legezko epea. Hiru jaun hauen izenak jaso dira epe barnean: Pello Salaburu Etxeberria, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Juan Apecechea Perurena. Datorren batzarrean egingo dira bozketak.

Datorren hileko batzarrea Bilbon izango da martxoaren 30ean, Lan Kide Aurrezkiak pertsona Izendegiaren hirugarren argitalpena babestu duenez, aurkezpena elkarrekin bertan egiteko.

Euskaltzaindiaren ekintza guzien zabalkunderako urteko Memoria baino zabalago argitalpen bat plazaratzea onartu da. Gerorako ere urtebiko irteeraz jarrai dezakeela ikusten da. Lehenengo hau, bereziki zaintzea komeni dela aipatu da. Publizitate etxe baten laguntzaz egingo da eta idazkari orokorrak emango dio gaingiroko onespina.

Azken batzarrean onartutako Argitalpen Batzordearen Erregeletan, urriaren azkena baino lehen prestatuko dela hurrengo urteko plangintza eta programaketa, esaten du 12. artikulua. Erakundeek urteko aurre-kontuak lehenago egiten dituztenez, Euskaltzaindiak prestateta hori ekainaren azkena baino lehen egingo duela, Erregeletan agertzea onartu da.

**Maileguzko hitzak**

Maileguetako hitz-bukaerei jarraituz, F. Krutwig jaunak bere aburua idazki baten bidez agertu du. Jakintza hitzak hartzeko tradiziorik ez dagoela eta jatorrizko grafia dagoen-dagoenean hartzea gomendatzen du.

“Euskal hitzen akabuko -O eta -U zenbait autoreetan” izeneko txosten berria eskaini du A. Irigoyen jaunak. Urtarrileko erabaki proposamena egiterakoan Uztaritzen aurkeztutako txostenak eta Mikel Zalbidek Euskaltzaindiaren aginduz egindako birmoldaketa zituen oinarri.

Euskaltzainburuak, bere aldetik, erabaki orokor eta oinarrizkoetara eraman gintzakeen laburpena ekarri du. Kultur hitzak zein eratan hartu behar diren jakiteko, iturrira joatea nahi luke. Lan hau laburregia gerta baledi ere, abiapuntu oso baliagarritzat eman da eta datorren batzarrera osoturik ekartzea eskatu zaio A. Irigoyen jaunari.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Euskaltzainburua*

*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*

*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*